



Anima Zaitetz!  
Zure ezagueriak,  
erabakigarriak  
Sé parte  
Tus gestos,  
lo cambian todo

Bilboko Plaza Berrian 12:00 a. m.  
Plaza Nueva de Bilbao



## “XV BILBOKO ERREGE-OPIL SOLIDARIOAK” MILAKA ERRAZIO BANATUKO DITU 2019KO URTARRILAREN 5EAN, LARUNBATA, BILBOKO PLAZA BERRIAN

- ‘Caritas Bizkaiak errege-opil erraldoi baten milaka errazio banatuko ditu 2019ko urtarrilaren 5ean, larunbata, Plaza Berrira gerturatzen diren pertsona guztien artean, eguerdiko HAMABIETATIK (12) aurrera. Euro bat eskatuko da pertsonako, Caritas Bizkaiaren Hautzaro eta Emantzipazio Programen barneko proiektuetara bideratzeko.
- Opila ‘Bizkaiko Okindegien Elkarteak’ egingo du aurtengoan ere, ‘Lapiko Catering’-ekin koordinatuta, eta ‘LogiFrio Bilbao’-ren laguntzaz, ‘Cafe Iruña Catering’-ek txokolatea eskainiko du, Kaikuk (esnea) eta Baquék (kakaoa) ekimenerako emandako osagaiekin egindakoa.
- LABORAL Kutxak babestutako ekimen honetan, Caritas Bizkaiako hamarnaka boluntariok parte hartuko dute eta ekimena antolatzeaz, dohaintzak jasotzeaz eta bukatu bitartean txokolate zein opila banatzeaz arduratuko dira.
- Proposamen honen bidez, Caritas Bizkaiak gizarte osoa ohartarazi nahi du erakundera gerturatzen diren familia eta pertsona askoren babesgabetasunez.

### ***Bilbo, 2019ko urtarrilaren 2a.-***

Errege-opil erraldoi solidario honen lehenengo zatia larunbatean egingo da, urtarrilak 5, 12:00etan. Opil solidarioak 500 kilotik gorako pisua izango du. Prestatzeko, errezeta tradizionala jarraituko da. Horretarako, honako osagaiak behar izango dira: 250 kg-tik gora irin, 50 kg-tik gora azukre, 75 kg gurin, 100 dozena arrautza, 25 litro laranja-lore ur, 25 kg legamia, 30 kg fruta azukreztatu apaintzeko eta 5 kg gatz.

Lehenengo zatia egin ondoren, bertaratutakoek (tartean Bizkaiko politika, gizarte eta kirol arloetako pertsona ezagunek) gozoki hau dastatu ahal izango dute. 3.000-3.500 errazio inguru banatuko direla kalkulatu da. Opil eta txokolate edalontziak banatzeko, eremuak antolatzeko, Hautzaro programarako dohaintzak biltzeko eta abar Caritas Bizkaiako hamarnaka boluntario egongo dira.

11:00etatik aurrera, Plaza Berria haurrentzako jolas-eremu bihurtuko da. Aurpegia margotzeko, puxikekin esku-lanak egiteko eta elkarrekin jolasteko tailerrak izango dira.

## HELBURUA

Caritas Bizkaiaren izenean, ekitaldi hau antolatzeko mugiarazten gaituena haurrekiko elkartasuna da. Bildutako dirua Bizkaia osoan zehar ditugun Gizarte eta Hezkuntza arloko Proiektuetara bideratuko da. Hogei proiektutik gora dira eta 670 haur ingururekin lan egiten dugu. Proiektu horien bidez, adin txikikoen gaitasun pertsonal, sozial, kognitibo eta hezkuntza eta familia mailako gaitasunak sustatu eta indartzen dira. Aurten, Emantzipazio arloko programekin ere bat egin nahi dugu, laguntza beharizan desberdinak dituzten 18 eta 23 urte bitarteko gazteei zuzendutakoak. Gaur egun, 40 gazte ingururekin lan egiten ari gara, gaztarotik helduarora igarotzen laguntzeko. Testuinguru horretan, etxebizitza egonkortasuna, ikasketetarako laguntza eta enplegu arloko orientazioa ematea funtsezkoa da.

## EGOERAREN AZTERKETA

Pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan, prebentzio estrategiak oso garrantzitsuak dira. Belaunaldi batetik bestera pobrezia eta babesgabetasuna transmititzeko ikusten dugun joera horri aurrea hartzea eta etetea oso garrantzitsua da pertsonentzat zein gizarte osoarentzat; izan ere, herritar guztien arteko kohesio soziala eta denon bizi-kalitatea bermatu nahi ditugu. Hori horrela izanik, adi egon behar dugu seme-alaba adingabeak dituzten familia eta gazte babesgabeenen beharizanetara.

2018an, Caritas Bizkaian seme-alabak dituzten 5.533 familiari eman diegu arreta. Horietatik ia erdia, 2.575, guraso bakarreko familiak dira (% 47), batez ere ama eta seme-alaba adingabeez osatuak.

Era berean, 16 eta 23 urte bitarteko 1.373 (% 64 mutilak) gazteri eman diegu arreta. Kolektibo bereziki babesgabea da; izan ere, pertsona heldu izatera heltzeko prozesuan daude, gizarte egoera babesgabea eta familiaren laguntza lortzeko aukera gutxirekin (pobrezia eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden familietatik datoz edo ez daukate batere familiarik), eta desabantaila egoeran daude lan eta gizarte arloan aukerak lortzeko orduan.

Caritasen uste dugu –gure esperientziaren arabera- posible dela pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko aukerak sortzea, hainbat tresnaren bidez, hala nola, babes ekonomikoa sustatzekoak; etxebizitza aukerak sustatzekoak; pertsonen parte-hartzea eta beren harremanen garapena bultzatzen duten gizarte ekimenak; lan duin bat lortzekoak; zainketen eremuaren eta laneratze eta gizarteratze eremuaren arteko kontziliazioa gauzatzekoak... eta, azken finean, beren beharizanak azaldu eta proposamenak egiteko aukera eman behar diegu, beren prozesuaren bideratzaile izateko.

Hori dela eta, Caritas Bizkaiak, egun garatzen ari den “Zure ezaugarriak, erabakigarriak” KANPAINAREN bidez, gizarte moduan pertsona babesgabeenen alde egitera gonbidatu nahi zaituzte

---

### Más información:

Begoña Rey: 665 72 38 96 · [komunika@caritasbi.org](mailto:komunika@caritasbi.org) · [www.caritasbi.org](http://www.caritasbi.org)